**GOBERNU BATZARRA**

**2015. 02. 19**

**Alkatea:**

**Ibai Iriarte San Vicente**

**Zinegotziak:**

**Lore Agirre Zipitria**
**Hasier de los Rios Soraluze**
**Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fer-nandez.**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Kontuhartzailetzako Teknikaria:**

**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren hemeretzian, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.- Foruen Etorbidea 7 zenbakidun Jabe Erkidegoei dirulaguntza.**

**3.-Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan dirulaguntza ematea.**

**4.-2015/22 eta 2015/143 Alkate dekretuak berrestea.**

**5.- 2015/281 Alkate dekretua berrestea**

**6.- Ibilgailuen zerga. Hobarien eskaerak.**

**7.-Ibilgailuen zerga. Salbuespenaren deusestatze proposamenak.**

**8.- Ibilgailuen zerga. Hobari eskaera.**

**9.-Ibilgailuen zerga: J.A.G.O.ren salbuespen eskaera.**

**10.-Ibilgailuen zerga. Salbuespen eskaerak.**

**11.-Ibilgailuen zerga. J.I.A.I.ren eskaera.**

**12.-Uzturre Zentroko tarifak.**

**13.-Iurreamendi egoitza. Urtarrileko faktura**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko otsailaren 6an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.- Foruen Etorbidea 7 zenbakidun Jabe Erkidegoei dirulaguntza.**

Tolosako Foruen Etorbidea 7. zenbakidun Jabe Erkidegoak igogailua jartzeko dirulaguntzen eskaera aurkeztu du, arautegiak eskatzen dituen agiriekin batera.

Babestutako obren ezaugarriak honakoak dira:

- Obra mota: Oztopo arkitektonikoak kentzea.

- Obren kostua: 67.156,30 euro.

- Dirulaguntza: 1.200,00 euro.

- Obra babestuaren kostuaren %10, 1.200,00 euroko mugarekin.

Aurkeztutako eskaerak betetzen ditu 2009ko uztailaren 7an udalbatzak onartutako laguntza ekonomikoen arautegian aurreikusitako baldintzak.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA**.- Foruen Etorbidea 7ko Jabe Erkidegoari 1.200,00 euroko dirulguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Dirulaguntza jasotzeko ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dutela adieraztea.

- Obra bukaerako ziurtagiria, obren zuzendaria teknikoak izenpetuta.

- Obren fakturak, likidazioaren zenbatekoarekin.

- Igogailuaren bukaerako egoeraren argazkiak.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Erretengibeleri eta interesatuei.

**3.- Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan dirulaguntza ematea.**

Lanbideren zuzendari nagusiaren 2013ko urriaren 30eko Ebazpenak ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEKO deialdia onartu zuen.

Hori dela eta, 2014ko maiatzaren 16an, Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek hitzarmena sinatu zuten "Langunea Tolosaldea 2014" proiektua aurrera eramateko.

2014ko irailaren 26ko 2014/1231 Alkate Dekretu bidez, Udalak erabaki zuen Lanbideri dirulaguntza eskatzea.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute "Langunea Tolosaldean 2014" programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Ondoren agertzen den enpresari dirulaguntza hau ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko den hitzarmenean jarritakoak betetzen baditu.

| Enpresa | Kontratu kopurua | Kontratu iraupena | Lanaldia | Langilea | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK S.L. | 1 | 3 hilabete | %83 | J.I.A. | 2.490,00 |

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Ingurumen Enplegu eta Garapen ekonomikoa departamentuari.

**4.- 2015/22 eta 2015/143 Alkate dekretuak berrestea.**

Alde batetik, Aldabako Intxur Elkarteari dagokion 2014urteko dirulaguntzaren bigarren ordainketa, 2.675 eurokoa, onartu da **2015/22** Alkate dekretuaren bidez.

Bestalde, Urkizuko Alur Txiki Elkarteari dagokion 2014 urteko dirulaguntzaren bigarren ordainketa, 2.875 eurokoa, onartu da **2015/143** Alkate dekr3etuaren bidez.

Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

**5.- <u>2015/281 Alkate dekretua berrestea</u>.-**

2015/47 fakturen erlazioa Alkate Dekretuaren bidez onartu da . Kopurua: **125.458,68** eurokoa da.

Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

**6.- <u>Ibilgailuen zerga. Hobarien eskaerak</u>.**

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikuluak zera dio:
“Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek % 50eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.”

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**<u>LEHENA.</u>-** 2015 urtetik aurrera ondorengo ibilgailuei aipatutako zergan hobaria ematea, 2015eko urtarrilaren 1ean 25 urte baino gehiago izateagatik:

El artículo 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos señala lo siguiente:
“Gozarán de una bonificación del 50 % de la cuota tributaria, los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años, contados a partir de la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.”

De conformidad con el art. 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**<u>PRIMERO</u>**.- Conceder la bonificación en el citado impuesto, a partir del 2015 , a los siguientes vehículos, ya que el 1 de enero de 2015 los vehículos tenían más de 25 años.

| MATRIKULA | URTEA | HOBARIA |
|---|---|---|
| SS-0128-AF | 1989 | 73,30 |
| SS-8727-K | 1978 | 8,85 |
| SS-0267-AD | 1988 | 73,30 |
| SS-1721-AG | 1989 | 73,30 |
| NA-2098-W | 1988 | 73,30 |
| NA-1765-AT | 1989 | 37,10 |
| TF-5897-AK | 1989 | 5,17 |

| | | |
|---|---|---|
| NA-8840-AP | 1989 | 131,95 |
| BI-6520-AX | 1989 | 36,20 |
| T-9813-U | 1988 | 37,10 |
| M-6688-BW | 1977 | 18,55 |
| M-7002-GD | 1984 | 131,95 |
| SS-3707-AD | 1989 | 73,30 |
| | **GUZTIRA** | **773,37** |

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuei.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los interesados.

.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.--

**L.M.A.M.ek egindako eskaera:**

**L.M.A.M**.ek Ibilgailuen gaineko Zergan %50eko hobaria eskatu du C-0234-BDC ibilgailuarentzak, 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna duelako.

**L.M.A.M**. ha solicitado la bonificación del 50% en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del vehículo C-0234-BDC, por tener una antigüedad superior a 25 años.

C-0234-BDC ibilgailuak 2024 ean beteko ditu 25 urte. Hau da, zergaren sortzapen egunean (2015ko urtarrilaren 1ean) ibilgailuak ez zituen 25 urte.

El vehículo C-0234-BDC cumplirá 25 años en 2024. Es decir, en la fecha de devengo del impuesto (1 de enero de 2015) el vehículo no tenía 25 años.

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza Fiskalaren 6. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, Gobernu Batzarrak

De conformidad con el art. 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- **L.M.A.M**.en izenean matrikulatutako C-0234-BDC ibilgailuari 2015 urterako %50eko hobaria ez onartzea Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan, zergaren sortzapen egunean hogeita bost urteko antzinatasuna ez duelako.

**PRIMERO**.- Denegar la bonificación del 50% de la cuota del Impuesto sobre vehículos al vehículo C-0234-BDC el año 2015, matriculado a nombre de **L.M.A.M.**, por no tener una antigüedad superior a 25 años el día del devengo del impuesto.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.--.-

**J.A.Z.M.k egindako eskaera:**

**J.A.Z.M.**k Ibilgailuen gaineko Zergan %50eko hobaria eskatu du A-8311-CP ibilgailuarentzat, 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna duelako.

A-8311-CP ibilgailuak 2015eko abuztuaren 14an beteko ditu 25 urte. Hau da, zergaren sortzapen egunean (2015eko urtarrilaren 1ean) ibilgailuak 24 urte zituen.

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza Fiskalaren 6. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.-**J.A.Z.M.**ren izenean matri-kulatutako A-8311-CP ibilgailuari 2015 urterako %50eko hobaria ez onartzea Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan, zergaren sortzapen egunean hogeita bost urteko antzinatasuna ez duelako.

**BIGARRENA**.-2015. Urtean 25 urte beteko dituenez, hobaria 2016ko ekitalditik aurrera aplikatzea.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**J.A.Z.M.** ha solicitado la bonificación del 50% en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del vehículo A-8311-CP, por tener una antigüedad superior a 25 años.

El vehículo A-8311-CP cumplirá 25 años el día 14 de agosto de 2015. Es decir, en la fecha de devengo del impuesto (1 de enero de 2015) el vehículo tenía 24 años.

De conformidad con el art. 6 de la ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Denegar la bonificación del 50% de la cuota del Impuesto sobre vehículos al vehículo A-8311-CP el año 2015, matriculado a nombre de **J.A.Z.M.**, por no tener una antigüedad superior  25 años el día del devengo del impuesto.

**SEGUNDO**.-Al cumplir 25 años a lo largo del año 2015, reconocer la bonificación con efectos a partir del período impositivo del año 2016.

**TERCERO .-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

7. **Ibilgailuen zerga. Salbuespenaren deusestatze proposamenak**.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu Batzar honek, Kontuhartzailetza departamentuak egindako proposamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.-Deuseztatzea ondorengo ibilgailuen salbuespena titularraren heriotzagatik:

**3353-DMS**
**7280-HXM**
**8368-CVS**

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuei.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, de conformidad con el informe emitido por el departamento de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Anular, por fallecimiento de sus titulares, la exención del impuesto de los siguientes vehículos:

**3353-DMS**
**7280-HXM**
**8368-CVS**

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de intervención y a los interesados.

8.- **Ibilgailuen zerga. Hobari eskaera.**

Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu Batzar honek, Kontuhartzailetza departamentuak egindako proposamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Deuseztatzea 4758-FMG matrikula duen ibilgailuaren salbuespena, ibilgailuaren titularra Tolosan erroldatuta ez dagoelako.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, de conformidad con el informe emitido por el departamento de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Anular la exención del vehículo matrícula 4758-FMG por no figurar su titular empadronado en Tolosa.

**SEGUNDO**.-Dar cuenta de la adopción del

ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

**9.- Ibilgailuen zerga: J.A.G.O.ren salbuespen eskaera.**

**J.A.G. O**.k Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena eskatu du minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergaren, uztailaren 5eko, 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Arauak aldatuta, eta zerga arautzen duen ordenantza Fiskala: ***"...salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira.... Aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko"...***

Ikusita, kasu honetan, 5963-DSG ibilgailuak 14 zaldi fiskal baino gehiago dituela eta titularra ez dagoela mugikortasun murriztuko A egoeran.

Kontuhartzailetza departamentuan egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.-**J.A.G.O**.ren izenean matrikulatutako 5963-DSG ibilgailua Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergako salbuespena ez ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**J.A.G.O**. ha solicitado la exención en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificado por la Norma Foral 3/2010, de 20 de diciembre, por la que se introducen determinadas modificaciones tributarias, y la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto: ***"...están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo...A las personas que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo 3 del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales."***

Visto que, en el presente caso, el vehículo 5963-DSG tiene más de 14 caballos fiscales y su titular no se encuentra en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A.

De conformidad con la propuesta emitida por parte del departamento de Intervención, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Denegar la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 5963-DSG, matriculado a nombre de **J.A.G.O.**

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

**10.- <u>Ibilgailuen zerga. Salbuespen eskaerak.</u>**

Jasotako eskaerak ikusita, eta aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, Zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Arauak aldatua, eta Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

A la vista de las solicitudes recibidas, y teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificado por la Norma Foral 3/2010, de 20 de diciembre, por la que se introducen determinadas modificaciones tributarias, y la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**<u>LEHENA</u>**.- Zerrendako ezinduei, beraien izenean matrikulatutako ibilgailuengatik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena onartzea 2015 urtetik aurrera (ibilgailu horiek espedientean agertzen dira).

**<u>PRIMERO</u>**.- Conceder, con efectos a partir del 2015, la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica a los vehículos matriculados a nombre de los minusválidos que constan en el expediente.

**<u>BIGARRENA</u>**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuei.

**<u>SEGUNDO</u>**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de intervención y a los interesados.

**11.- <u>Ibilgailuen zerga. J.I.A.I.ren eskaera</u>.**

Bi mila hamabosteko urtarrilaren 12an, **J.I.A.I.**k Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergan salbuespena eskatu zuen minusbaliotasunagatik, 2730-HYB ibil-gailuarentzat.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu Batzar honek, Kontuhartzailetza departamentuak egin duen proposamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

El 12 de enero de 2015, **J.I.A.I.** solicitó la exención en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 2730-HYB, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, de conformidad con la propuesta presentada por el departamento de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- **J.I.A.I**ren izenean matrikula-tutako 2730-HYB ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ematea 2015eko ekitalditik.

**BIGARRENA**.- Adieraztea emakida berriak deuseztatu egingo duela 2015ean 0980-DMR matrikula duen ibilgailuaren salbuespena.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 2730-HYB, matriculado a nombre de J.I.A.I., con efectos a partir del período impositivo del año 2015.

**SEGUNDO**.- Comunicar que ésta nueva concesión dará lugar a la anulación de la exención del vehículo matrícula 0980-DMR el año 2015.

**TERCERO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

**12.- Uzturre Zentroko tarifak.**

Gaia erabaki gabe geratu da eta hurrengo Gobernu Batzarrean tratatuko da.

**13.- Iurreamendi egoitza. Urtarrileko faktura.**

Iurreamendi egoitzak urtarrileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA.-** Iurreamendi egoitzari ordaintzea urtarrileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 22.976,00 €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 1.177,38 €
Elbarrien defizita: 21.798,62 €

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**